

Jose Antonio Arana Martija eta Euskal Idazleen Elkartea

(Jose Antonio Arana Martija and the Association of
Writers in the Basque Language (EIE))

Velez de Mendizabal, Josemari
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48.
20007 Donostia

BIBLID [1137-4470 (2007), 15; 43-52]

Jaso: 06.12.18
Onartu: 07.06.18

Jose Antonio Arana Martijak zerikusi handia izan zuen Euskal Idazleen Elkartearen sorrera prozesuan. Aldi bateko idazkari lanetan, euskal idazleok eragin zituen, 1983an modu ofizialean eta espainiar estatuko legearen arabera behin betikoz sortutakora erakartzen. EIE-ri dagokion arloetan Arana Martijak, Euskaltzaindiaren izenean edo modu pertsonalean aritu zenean, profesionaltasun osoz ihardun zuen beti.

Giltza-Hitzak: Euskal Idazleen Elkartea. Euskaltzaindia. Euskara.

Jose Antonio Arana Martija fue muy importante en el proceso de fundación de Euskal Idazleen Elkartea (Asociación de Escritores en Lengua Vasca). Ofició de secretario provisional, impulsó la incorporación de los escritores vascos a la asociación que en 1983 se constituiría definitivamente con arreglo a la legislación vigente en el estado español. Arana Martija al actuar en los apartados correspondientes a la EIE, bien en nombre de Euskaltzaindia bien de forma personal, lo hizo siempre con absoluta profesionalidad.

Palabras Clave: Euskal Idazleen Elkartea. Euskaltzaindia. Euskera.

José Antonio Arana Martija a joué un rôle très important dans le processus de fondation d'Euskal Idazleen Elkartea (Association des Ecrivains en Langue Basque). Il en a été le secrétaire provisoire, il encouragea l'incorporation des écrivains basques à l'association qui, en 1983, s'est constituée définitivement conformément à la législation en vigueur dans l'état espagnol. Arana Martija en intervenant dans les sections correspondant à la EIE, ou bien au nom d'Euskaltzaindia ou bien de façon personnelle, l'a toujours fait avec un professionnalisme total.

Mots Clés: Euskal Idazleen Elkartea. Euskaltzaindia. Langue Basque.

karpen txiki honek hainbeste goi ikerlarirenen artean Koadernoari balio erantsirik adieraziko ote dion nire buruari galdezka ekin diot lanari. Gainera Musiker-i dagokion espezialitatearekin zerikusirik ez duen gai bati lotu naitzaio, objektu (subjektu) den pertsonarekin erlazionatzen nauen arloa musikatik kanpo garatu baitut. Beraz, aurrekoa idatzita, noan poliki-poliki nire gaiarekin, zenbait lerro idaztera gonbidatu nauten lagunei eskerrak eman ondoren, niretzat ohore handia baita Jose Antonio Arana Martijari eskaintzen zaion omezeko liburu honetan esku hartu ahal izatea. Zeugatik, beraz, Jose Antonio!

Idazle lanetan hasi nintzenetik biziki lagundu didan pertsona da Jose Antonio¹. Horrek adiskidantzazko lotura ere ahalbidetu du gure artean eta nire aldetik ere miresmena diodala aitortu behar dut. Pieza bateko gizakia da, zintzoa, lagunekiko zein bere buruarekikoa ere, sarritan hain samurra gertatzen ez dena. Ia hogeita hamar urte dira elkar ezagutu genuenetik. Euskarak lotu gintuen eta euskarak eraman gaitu ibilbide malkartsuko zenbait mugarri berdintsutatik. Bidaiakide izan gara euskalgintzan. Bidean une goxoak eman ditugu eta –zergatik ez gogoratu?– gaziak ere bai. Baina ongi inbertitutzat ematen ditut denak, amesten genituen helburuak erdiesten joan direla ikusita. Egiteke duguna oraindik luzexka den arren.

Kronologikoki hasi behar badut, Jose Antonioren gaineko lehen albistea liburu batek eman zidan: “Lur eta Gizon, Euskal Herria”, Jakinek 1974an argitaratua. Euskal geografia, gizakiak eta beren ogibideak, nekazaritza, arteak, langile mugimenduak, zuzenbidea, arkitektura, kirolak, euskara... eta, noski, musika arloak aztertzen zituen. Jose Migel Barandiaran, Luis Villasante, Juan San Martin, Piarres Lafitte, Jose Mari Satrustegi, Alfontso Irigoien, Martin Ugalde, Rodolfo Bozas Urrutia, Jose Antonio Eizagirre Garaikoa, Jose Luis Lizundia, Jose Ignazio Linazasoro, Joseba Intxausti eta Jose Antonio Arana Martija ziren liburuaren egileak.

Juan San Martinen hitzak erabiliz, liburu hark “Ba al da euskal kulturarik?” maiz entzundako galderari erantzuten zion. Burua atzera itzultzen dugunean, halako baieztapenak artean 1974an egiten zirela ikusteak gure gizartean aldakuntza nabarmena eman dela aitortu behar da, eta hori liburu hartako egileen moduko pertsoneri zor diegu, gai izan baitziren euskal ildotik gogor ibiltzeko, zirkunstantziek uzten zieten neurrian. Horietako bat, beraz, Jose Antonio zen, musikarekin askoz lehenagotik erlazionatua, hogeitau urte aurretik Gernika bere jaioterrian Santa Zezilia Korala sortu zuelarik.

Aipatu ditut zirkunstantziak, eta adierazi behar da Jose Antoniok 1960an “Brisas Guerniquesas” aldizkariaren zuzendaria izan zela eta bertan euskarazko artikuluak idazteari ekin ziolako askoren errieta eta mehatxuak jaso zituen. Musikarekin jarraituz, 1976an Jose Antonioren liburu eder bat erregalatu zidaten: “Música Vasca”. Ordura arte euskal musikaz argitaratutako libururik ederrena da, ene ustez. Jose Antoniok liburuaren eskaintzan idazten dituen hitzek, bestalde, gizon honen sentimenduak mugatzen dizkigute, garbi

1. Nire lehen liburuan –Sebero Altube– 1979an argitaratua, ekarpen baliotsua izan zuen.

asko: “Euskalherrian sortu ninduten aita eta amari. Euskalherrian izaten laguntzen didan Maitederreri. Euskalherriari”.

Euskal Herriari dion maitasunak eraman zuen denboraldi batzuetan kartzelara, Basauri eta Jaenen. Eta trantsizioko garaietan Euskal Sozialista Biltzarrea (ESB) taldearen sortzaileetariko bat izan zen.

Lantxo honetan Jose Antonioren lan ibilbidearekin erlazioz nahi dudan alderdia ez dela hain ezaguna esango nuke. Egia aitortzera, ez da Arana Martijaren kurrikulum luzean modu berezian agertzen dena, baina nirearekin hertsiki lotuta dagoelako aukeratu dut. Euskarak eraman ninduen Jose Antonioren 1978an, aholku eske hurbildu nintzaiolarik eta euskararen oinarritua eraiki dugu gure arteko adiskidantza. Euskal Idazleen Elkarte bati itxura ematen ari zen Arana Martijarengana hurbiltzen hasi nintzenean. Euskaltzainditik ziharduen, ordurako Jose Antoniok euskararen akademian lan egiten baitzuen. Eta berau zen Elkarte sortzeko lanetan ari ziren eragileetariko bat.

Elkarte baten gaineko ideia ez zen berria. Ezaguna den moduan, lokin Zaitegi² zenak Idazleen Etxea deitzen zuena eratu nahi izan zuen modu altruista batez, baina porrot egin zuen ahaleginetan, euskal idazleak arazo desberdin batzuek arduratzen baitziren garai hartan.

Iragan mendeko erdialdean jar genitzake euskal idazleak elkartzeko aurreneko ahalegin serioak. Bidegoiango Usarragan bildu zen 1955eko azaroaren 27an idazle taldetxo bat –Imanol Laspiur, Paulino Larañaga, Bittor Kapanaga, Andoni Kaiero eta Alfontso Irigoien. Bileran esku artean izandako gaien gain jasotako aktan irakur daiteke:

Euskal literatura bide berrietatik barrena asia dugu alderdi onetako Euskalherrian. Sortu da, nolabait, euskal mogimendu bat, oraindik ez tuten arren bear lukean edadura ta eritziak bat ez etorri zearo. Iritzi berezitasuna leengoa dugu eta orduko pertsona bakoitzak bere bizi osorako darama bide ori, ilobiraiño. Gazteago direnen artean beste bide bat, zabalagoa, naturalagoa dator sortzen... Onegatik gazteak zentzun argiagoa edukiteko egokera obean daude realismuari buruz, idealismua dutela gidari.

Izenpetu ez arren, badirudi akta Irigoienek egina dela. Idazkiaren beste lerroalde batean honela jartzen du aktaren egileak:

Amarderdietan entzun genuen meza Usarragan bertan. Erri euskalduna dugu oraindik. Apaizak meza erdian bota zuen bere sermoia errosarioari buruz ta onen ugaritzeari ta leengo oiturari eutsiteari nola indar eman bear zaion... Eguraldi ona zegoen ezkerre eguzkitara joan giñen kanpoko zoko batera, bakartadera, lasaiago mintzatu aal izateko, ta asi genuen berriketa, obeto esan segitu genuen treneko ta bideko solasa, zuzenago artuz gaia.

2. Hain zuzen ere, lokin Zaitegiren liburu gordailua Baionako Villa Izarratik Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzara aldatzen aritu ginen Jose Antonio eta biok. Eta baita Zaitegiri Arrasateko etxea erre zitzaionean (1979) bertatik atera ahal izan genituen paper eta liburu ugari ere Euskaltzaindira garraiatu genituen.

Bilera hartan mami gehien hartu zuen gaia, Donostiako Julio de Urquijo Mintegiaren babesean eta Koldo Mitxelenaren zuzendaritzapean euskaltzale talde batek lanean hasteko hitza eman zuela, asteroko bilerak antolatuz, izan zen. Euskal Atlas Linguistikoa eta Azkueren Hiztegi Osotua ziren mintegiko euskaltzale haien ardurarik nagusienak.

Bi hilabete beranduago, 1956ko urtarrilaren 15ean, Eibarren bildu ziren Usarragan egondako batzuk, hitzordu berrira idazle gehiago ere azaldu zirelarik: Imanol Laspiur, Jose Antonio Eizagirre, Paulino Larrañaga, Andoni Berrueta, Jose Luis Ugarteburu, Serafin Basauri, Andoni Totorika, Margarita Murgizu, Teresa Urrestarazu, Konta eta Felisa Basauri, Pablo García de Arteaga, Juan San Martin, Evaristo Martínez de Iturrate, Elena Etxebarria eta Alfontso Irigoien. Jose Luis Alvarez Enparanzak ezin etorria azaldu eta Alfontso Irigoien bidalitako eskutitz bat irakurri zen batzarrean.

Aktan jaso zen Txilardegiren idazkiak honela zioen:

(...) Idazle gazteren talde bat sortzeko betekizuna ederra zeritzaidak arras: orain arte zarrak bazirala-ta, ez diagu aurrerapen izpirik lortu gure gaztedian. Bearrezkoa dek, ordea, idazle berriak jaiotzea.... Errian bertan eta erriarekin artu-emanetan ikastea bide egokia diagu, noski. Ezinbestekoa, alaz ere, bestetango euskera alik ondoen ezagutzea, arrezkerro galdu besterik ez bai-dik egin gure izkuntza maitagarri ta maitatu onek. Berrikeririk asko egin dek, geiegi noski, eta euskera biziaren iturburuetara jo bearra zegok, zerbait onurakor egin nai badiagu behintzat.

Aktan beste aipamen gutxi egiten dira Alvarez Enparanzarenetatik kanpo. Horietako bat, Alfontso Anaitasuna aldizkarira bota nahi zuen lantxo baten irakurketaz ari da

Bear bearrezkoa dugu erritik konplejo bat kentzea: gaizki eta itxusi itz egiten duela. Modan jarri bear dugu euskera eta dotoretzat eta jatortzat eduki, edozein baseritar naiz kaletarrek beren etorri ugariak eragiñik egiten dutena, gure izkuntzak ongaria eduki dezan landu bear dugun alorrean.

Garbi dago lehen bilera haietako idazleen kezka euskararen inguruan ematen zirela gehien bat. Euskara normalizatu, herrikoi eta eraginkor baten aldeko apustua egiten ari ziren. Alfontsoaren estiloarekin jasotako hurrengo aktan ideia horiek islatzen dira. Bilera 1956ko martxoaren 4an egin zen, Deban, eta lokin Zaitegi, Gabriel Aresti, Pablo Garcia de Arteaga, Paulino Larrañaga, Andoni Berrueta, Evaristo Martinez de Iturrate eta Alfontso Irigoien agertu ziren.

Zaitegi jauna, euskerari, munduan zear benetako maitasuna agertu dion jaun egiña izan zen gure buru, gazte gentea ezagutu naiak eragiñik... Arestik galdetzen du ia zeren billa ibili bear lukean poesigilleak eta ia nolako edertasunaren atzean. Beretzat, itxurazko edertasuna baizik ematen ezpaldin badu, au da, soiñuan eta riman, obe da edertasun ori benetako neskatilla baten politasun eta maitasunean billatu, adibidez: bai birtutean edo ta bai kerian ere... Bazkaldu baiño leen etorri zaizkigu gazteiztar biak eta eibartarra ta eguerdi guztietako eginbearrari ekiten diogu berriketa utzi gabe. Gure ondoan, lekuri naikoa ezpaitzeagan, motrikuar jator bi ezarri

zaizkigu, goizeko arrijasotzailleak eta arratsaldeko probak zirela eta etorriak. Jatortasunari buruz, animalia bat ezta ilten, tragua edo akabatu baizik. Motrikuarrerri galdetzen zaie ta auetatik batek dudarik gabe ta iritzi onen alde jaikirik esaten du: "animaliak akabatu; il, kristauak" Kristau konzeptu oso zaar bat... Arratsaldean probetara goaz... Egun alaia iragan dugu, berriketa etengabekoa. Arestik ere euskaldun berria izanik parra parra itz egin digu, euskal itz aproposa etzetorkionean burura erderazkoa egokiturik.

Urte batzuk beranduago, 1969ko irailaren 6an, Euskal Idazleen Elkarte baten itxura hartu nahi zuen talde baten lehenengo biltzarra burutu zen Baionan. Gabriel Aresti, Jose Azurmendi, Jose Antonio Arze, Jean Erdozaincy-Etchart, Salbador Garmendia, Xabier Gereño, Daniel Landart, Amaia Lasa, Jose Luis Lizundia, Ramuntxo Kanblong, Xabier Kintana, Ibon Sarasola, Joan Mari Torrealdai, "Txillardegia" (Jose Luis Alvarez Enparanza) eta Anjel Zelaieta bildu ziren arratsalde hartan.

Deitura –Elkarte, Elkargo...– zein aukeratu izan zuten lehen eztabaida eta behin erabakiz gero³ Elkarte legepean sartzeari komeni ote zen garbi ikusten ez zutelako, gai horretaz aurrerago aritzea erabaki zen. Idazkaritza bat sortu zen eta idazkari Joan Mari Torrealdai hautatu zuten, bi laguntzailerekin: Kanblong eta Kintana. Aldez aurretik batzarkideei helarazitako behin behineko Barne Araudiari eginiko zuzenketekin Txillardegia izendatu zuten arduradun, behin betikoa taxutzeko. Eta Elkartean parte hartzeko idazle gehiagori gonbite egiteko komenientzia ikusi zen, eta baita izen batzuk azaldu ere.

Behin behineko Barne Araudi hartan, eta bilerara joandakoen aldetik emendakinik jaso ez zuen zatia sarrerakoa da. Irakur dezagun, Elkartearen nondik norakoak hobeto ulertzen argi diezagukeena:

Elkarte huntara bildu geran lagunok batasuna bultzatzeko bildu gara: bai hizkuntza idatziaren aldetik, bai geure arteko hartu-emanak eta elkarrekin laguntza haunditzearen aldetik. Elkartean jarrai ahal izateko, beraz, baldintza bat da beharrezkoa: Elkarteak hartutako erabakiak denok batera betetzea. Hunela jokatzeko gertu ez dagoena ez dugu inolaz ere gure etsai nagusi egingo; baina Elkartetik at utzi beharko dugu. Puntu hau hertsiki-hertsiki atxiki beharra dago. Bestela alperrik sortuko genukean gure Elkarte. Are gehiago, kaltegarri ere gerta lebiguke.

Eta bilera hartako aktan jasotzen da lehen aldiz, nik dakidalarik behinik behin, idazle multzo batek beren interesak defendatzeko beharra ikusten duela. Eta lehen portzentajeak markatzen dira: %10 eskatuko zitzaion argitaldiari liburu bakoitzeko; eta aldizkarietako idazle fijoek, 50 aldiz idatzi ondoren, diru kantitate bat eskatuko zuten euren ekarpenen ordain gisa.

Baina, halaber, beste kezka batzuk ere ageri ziren bildutakoen artean. Hala nola, Arestik Lur argitaldari berria eskatu zuen idazleen topagunea bilakatzea, besteekin fidatzerik ez zegoelako, eta, beraz, bileran honako erabaki hau hartu

3. Beste bilera batean ostera mahairatuko zuten gaia, denak ez baitzetozen ados Elkarte hitzarekin.

zen: *“Oraingoz, Argia, Jakin, Egan, Anaitasuna eta Herria laguntzea aldizkariei dagokienez eta Lur deritzanari, liburu argitaratzaileari dagokionez”*. Aurreko erabaki hori Barne Araudira ere aldatu zen. Ikastolei laguntza luzatzea proposatu zen eta itzultzaile lanetan haiek norbait behar izatekotan aproposena Salbador Garmendia zela erabaki zen. Euskara batua zela eta, Gereño eta Lizundia hitz egitekotan geratu ziren Zeruko Argiako zuzendariarekin, astekariak *“batasun aldetik lan gehiago egin dezan”*. Eta batzarra ezin zen amaitu ortografia, gramatika eta hiztegi gintza arloak ukitu gabe, normaltasunerako ardura nagusiak Aresti, Kintana, Txilardegi eta Garmendiaren gainean erori zirelarik.

Elkartearen hurrengo bileran, 1969ko abenduaren 27an Baionan ere eratu, aditzera ematen da Xabier Gereñok argitaratu berri zuen *“Arantza Artean”* liburuaren irabazietatik 7.500 pezeta eman ziola Elkarteari. *“Txalo sorta bero bat eskaini zaio, hantxe bertan”* dio aktak. Eta aurrerantzean egileen eskubide ekonomikoetatik bakoitzak jasoko zuenetik Elkarteari emateko maila %1ean utzi zen, *“oraingoz Elkarteak dirua ba duenez gero”*. Bestalde, bazkideen urteko kuota fijatu zen, 100 pezetatan.

Baina bilera hartan eztabaidarik luzeena sortu zuen gaia argitaldariei zegokiena izan zen. Kuliska Sorta, adibidez, Elkartearen esanetara jarri zen, baina Elkarteak Kuliskari eskerrak eman ondoren *“Batasun bidetik jotzen duten editorialei preferentzia ematen diela esatea ofizialki erabakitzen da, eta Lur ez dela Elkartearen editorial bakarra”*. Bitxia bada ere, hizkuntza arazotan Euskaltzaindiaren esanetara egon beharrean, *“Elkarteak azken hitza beti Mitxelenaren eskutan uztea erabakitzen du”*.

Elkartearen ibilbidea, bestalde, une haietan Euskaltzaindiaren barruan bertan ematen ari zen mugimenduaren ondorioa zen. Manuel Lekuona euskaltzainburua zelarik, euskararen batasunerako auzia pil-pilean zegoen. Txilardegik eskutitza bidali zion Elkartearen idazkariari eta, besteak beste, honelako baieztapenak egiten zituen:

Mitxelenaren eta San Martinen ustez (eta Rikardo Arregik gauza bera esaten zidan aspaldidanik) Euskaltzaindian partida galdua dugu bere hortan. Hortik jotzea gure burua urkatzea da. Gezurra badirudi ere, Mitxelena, San Martin eta Lizundia ez dira aski gu nagusitzeko.

Elkartearen hurrengo bileretan *“Baionako zina”* bezala ezagututako testua erabili zuten aztergai. *“Batasunaren Kutxa”* izango zen liburuko erabakiak idazle guztiek beteko zituztela esaten zen testu hartan. Eta 1970eko martxoaren 29tik⁴ 1971ko azken egunera arte liburuko moldeez eta arauz baliatuko zirela zin egiten zuten. Kutxaren giltzariak ere izendatu ziren –Txilardegi, Aresti eta Jesus Altuna– eta zin egindakoetako norbaitek erregelekin ados ez zegoenean horietako bati adierazi behar zion bere deliberamendua. Balizko zuzenketak egiteko Mitxelenarengana jo behar zuten giltzariek, haren aldetik behin eta betiko erabakia hartzeko.

4. Bilera martxoaren 28an egin zen.

Mitxelenak, Zinaren testuak zioenaz jabetuta, idazki luze bat bidali zien Elkarteko arduradunei, Errenteriatik 1970eko martxoaren 27an, Baionara ezin zela azaldu adieraziz eta bere iritzia, huskeriak huskeria, biltzarkideenekin ados zetozela baieztatuz. Hala ere, errenteriarak honela zioen idazkian:

Izkribuz agertzen naiz Baionara, egokiago deritzadalako. Asteartean dugu Euskaltzaindiaren biltzarra Donostian eta neure aldetik egin dezakedana, nik uste, han egin dezaket batez ere eta egin behar dut. Ez litzake batere zuzen, gainera, euskara nik bakarrik "asmatzea"; norbaitek esan duenez, beste gehiago ere sar dadila eginbide horretan. Nolanahi ere, gure hizkuntzaren batasun alde hor egin asmo duzuten lanean lankide natzazue... Politika, erlijio eta gainerako hauziak batasunarekikoarekin nahasteak, alde batetik eta bestetik egin den legez, ez dut uste batere onik egin dezakeanik. Ezin-bestekoa eta nora-ezekoa dela nahastekatze hori, badakit, baina bereizten saiatu behar genduke nahasten baino areago.

Laugarren biltzarrean, hain justu 1970eko maiatzaren 1ean Eibarren burutua, hogeita hamar bat idazlek, alfabetatze lanetan ziharduten hamabost bat irakaslek, ikastolei lotutako hiru lagunek eta irakaskuntzan ari ziren hiru maisuk izenpetu zuten "Batasunaren Kutxa"n⁵ azalduko zen zina.

Jauzi bat egingo dut Elkartearen historian eta 1978ra arte noa, hain zuzen azaroaren 5era, egun horretan Elkarteak bere bilera izan baitzuen Durangon, geroari begira zer egin zitekeen elkarrekin aztertzeko. Euskararen inguruan egoera aldatzen ari zela ikusten zen eta baldintzak ez ziren hamar urte lehenagokoak. Bilerarako deialdia, 1969ko irailaren 6an Baionan idazkari lanetarako hautatutako Joan Mari Torrealdayk izenpetzen zuen. Eta gai zerrendako puntuetariko bat Idazkaritzaren Hautapena zen.

Bilera hartara agertu ginenok, batzuk –nire kasua, adibidez– deituak ez izan arren- Jose Antonio Arana Martija aukeratu genuen Elkartearen idazkari. Eta garaiak garai, ordura arteko norabidea aldatu beharra ikusten genuela adierazi genuen ozen. Jose Antoniori eskatu zitzaion Elkartearen Araudi berri baten zirriborroa prestatzea, denon arteko eztabaidarako oinarritzat hartuko genuena. Baita berak agindua bete ere eta urte bereko abenduaren 15ean idazki bat bidali zigun. Gogoratu behar da, Elkarate hura ezelako ofizialtasunik gabe ari zela eta lehenbailehen legeztapena lortzea enkargatu zitzaion. Lehen zirriborro hartako lehen artikuluan Elkartearen helburuak mugatzen ziren: "a) *Euskaraz idazten duten idazleen beharrezko profesionalen erantzuna ematea* b) *Euskarazko liburutegia bultzatzea*".

Emendakin eta iradokizunak aurkezteko epea ireki zen eta hori amaituta 1979ko otsailaren 10erako gonbidatu gintuen Jose Antoniok Elkartearen batzar orokor batean esku hartzeko. Bilera Euskaltzaindiaren Azkue Bibliote-

5. Liburu honek bete zituen 1971ko udako hilabeteetan, Zamorako Montelarreinan eman behar izan nuen soldadutzako kanpamenduko tarte libreak. Euskara ikasten ari nintzelarik, atera kontua zein nolako estutasunak pairatu nituen 35-40° tenperaturako bazkalosteko orduetan, euskararen paradigma, deklinabide eta gainerakoak neureganatu nahian.

kan izan zen, Bilbon. Deialdiari Xabier Gereño, Mikel Zarate, Luis Alberto Aranberri "Amatiño", Jose Antonio Arana Martija eta bostok⁶ bakarrik erantzun genion. Hurrengo egunean Amatiñok "Bost katu, bost" titulatzan zuen bere zutabetxo Deia egunkarian:

Euskal Idazleen Elkartearen Batzarra eratu zen atzo. Gobernu Zibilean aurkeztu nahi den araudia erabakitzeko batzarra zen atzokoa. Arrazoi bategatik edo bestegatik ordubete beranduago heldu nintzen eta lau tipo mahai baten inguruan aurkitu. "Barkatu, berandu nator, aspaldi amaitu al duzue batzarra?" "Horretan gaude, hain zuzen ere..." "Baina hau al da Euskal Idazleen Batzarra?" "Bueno, hau bakarrik ez... orain baita zu ere!" "Joño, karguak banatzen hasten bagara, baten bat tokatuko zaigu behintzat" Pesimistek beti esan dute euskaldunok lau katu garela. Ez zaie masokista horiei jaramonik egin behar, euskal idazleok behintzat lau katu ez ezik bost gara eta! Uste baino ehunetik 25 gehiago!

Bilera hartan, behintzat, urrats batzuk eman genituen eta horietako bat Euskaltzaindiaren babespean sortu beharreko Elkartearen berehalako legeztapenerako prozesua abian jartzea izan zen. Eta aginduari jarraiki, 1979ko maiatzaren 7an, Euskal Idazleen Elkartearen sortze idazkia izenpetu zuten hiru kidek, Xabier Gereño, Jose Antonio Arana Martija eta Juan Jose Zearreta, hain zuzen, Azkue Bibliotekan bilduta. Gereño izendatu zuten lehendakari, Arana Martija idazkari eta Zearreta diruzain. Behin behineko batzordearen zereginik garrantzitsuena Gobernu Zibilaren bitartez legeztapena erdiestea zen. Eta lanari ekin zioten.

Baina ezustekoak aurki hasi zitzaizkien azaltzen, bata bestearen ondoan, eta prozesua moteldu egin zen, arras. Aldatu behar izan zen Elkartearen helburua, Barne Ministeriotik "interes profesionalak" Lan Ministerioaren eskuduntza zela argudiatu baitzen eta, bestalde, estatutuen egokitzapen sakonagoa eskatzen zitzaaien eragileei. Kontsultatu zitzaigun ostera idazleoi eta geure iritzia eman ondoren berriz bidali zen dokumentazioa 1980ko urtarrilaren 3an. Baina hil bereko 29an Ministeriotik adierazi zuten 1979ko dokumentazioa iraungi zela. Ekainaren 9an erantzuten zioten Xabier Gereñori, nahi izanez gero baliorik gabeko dokumentazioa jaso egin zezakeela Madrilan. Gereñok nota hau pasatu zion Jose Antonio Martijari:

Idazki hau gaur heldu da. Madrilan adarra jotzen ari dira eta nik uste dut Euskal Gobernua martxan ipintzen denean Elkartea hemen legeztatzea izango dela egokiena.

Elkarteak, beraz, ez zuen funtzionatu bere eragileek nahi izan zuten moduan. Ahalmen gutxirekin kudeaketarako, Jose Antonio Arana Martijak -idazkari gisa- nabarmen murriztu zituen bere betebeharrak, Eusko Kontseilu Nagusitik Elkarteari luza zekiokkeen laguntza apurren arlora mugatuz, ia bere osotasunean. Eta ostera erabaki sakonak hartzeko garaia zela iruditu zitzaaien idazle batzuei.

6. Kuku bat Jose Ramon Etxebarriak ere egin zuen, baina bildutakoak agurtzeko soilik.

Horrela, 1982ko otsailaren 25ean Gipuzkoako Diputazioaren Elkano are-tora bilarazi gintuzten Euskaltzaindiko Jagon Sailburuak eta Literatura Batzor-deko Buruak. Baina gai zerrendan ez zen azaltzen Elkartearen gaineko eze-lako aipamenik. Jesus Mari Lasagabaster, Arantza Urretabizkaia, Josu Landa, Jose Antonio Agirre, Iñaki Azkune, Xabier Garagorri, Luis Mari Muxika, Jose Antonio Arana Martija, Jose Antonio Loidi, Federiko Krutwig, Angel Lertxundi, Iñaki Zubizarreta, Manu Ertzilla, Pello Zabaleta, Alfontso Irigoien, Juan San Martin eta Josemari Velez de Mendizabal idazleok agertu ginen. Eta bileran Elkarteaz aritu ginen.

Krutwigek txosten bat⁷ aurkeztu zuen Elkartearen asmoa zein litekeen azalduz. Federikok behin eta berriz azpimarratzen zuen Elkarteak erakunde profesionala izan behar zuela, egileen eskubideak defendatzeko. Jose Anto-nio Aranari eta niri egokitu zitzaigun azken hilabeteetako kudeaketaren berri ematea. Gehienon baitan zegoen Elkarteak Euskaltzaindiaren babesetik kanpo egon behar zuela, nahiz eta une hartan ez genekien nola gauzatu for-mula egokia. Erret Akademiaren erakarpina indartsua zen eta batzuek haren aterpean kokatu nahi zuten gure Elkarte, hobeto arituko zelakoan. Eztabaida luzexka izan zen alde horretatik.

Bidea jorratzen joan ahal izateko, behin behineko batzorde bat izendatu zen: Angel Lertxundi, Manu Ertzilla, Jose Antonio Arana Martija, Juan San Martin, Federiko Krutwig eta seiok. Idazkaritza lanetarako ni aukeratu nin-duten. Bilera horren berri biharamunean eman zen Euskaltzaindiaren ohiko batzar orokorrean.

Behin behineko zuzendaritza batzorde hark martxoaren 11an izan zuen bere lehen bilera, Durangoko Udaletxean eta bertan eskatu zitzaidan behin behineko araudia prestatzea. Kontuan izan ez zirela estatutuak, araudia bai-zik, une haietan artean Elkarteak Euskaltzaindiaren adar bat izan behar zue-lakoan baitzeuden zuzendaritzako batzuk. Araudia sei egun beranduago bidali nien batzordekideei. Eta 1982ko uztailaren 30ean, Euskal Idazleen Elkarte sortzeko agiria izenpetu genuen Angel Lertxundi, Xabier Gereño eta hiruok. Haiek lehendakari eta diruzain izan ziren, hurrenez hurren, eta ni idazkari. Araudia Estatutuak bilakatu ziren, azkenik Elkarteari ibilbide propioa ematea erabaki baikenuen, Euskaltzainditik kanpo.

Zenbait hilabetetako gestioen ondoren Elkarte legeztatzeko iragarpena Estatuaren Buletin Ofizialean argitaratu zen 1983ko urtarrilaren 26an. Euskal literatura behar den moduan babesteko, idazleak ordezkatzeko beraien inter-esak kudeatuz eta defendatuz genuen lehen helburua eta asmo horri atxiki gintzaizkion, Madrilen eragozpen guztiak gainditu genituelarik. Elkarte auto-nomo bezala sortu zen, Espainiako eta Europako beste idazle elkarte batzuen zeregin eta lan esparruak nolakoak ziren ikertu ondoren. Nortasun juridikoare-kin, etorkizun zabala aurkezten zitzaion Elkarteari. Eta horrela izan da, egun bizitasun eta ekarpen handiko erakundea baita. Ordudanik gaur bitarteko

7. Gazteleraz idatzita zegoen eta "Euskal Irazleen Elkhargoa" zuen titulua.

historiak beste idazki baterako emango luke, baina gaurko nire asmoetatik kanpo dago, Jose Antonio Arana Martijarekin lotu nahi izan baitut Musikere-rako gertu dudan idazlantxo hau.

Jose Antoniok ongi merezi du Musiker Koadernoak eskainitako omenaldi hau. Euskaingintzan berak jorratu dituen espazioetan ugari sortu dira fruituak. Hori gogoan edukita, Arana Martija adiskideak ongi inbertitutzat eman behar du bere ahalegin luze eta osoa. Sebero Altube, ziur nago, oso harro egongo zen bere erdi herrikidearekin. Zorionak Jose Antonio eta urte askotarako!